



# ZER EDOZER

LARRABETZUKO SORKUNTZA GUNEA

PERU CALABAZA SABAN  
IKERTU 2017

# Herritarrengan sormena lantzen

## ZERGATIK

Ni Larrabetzun bizi naiz. Larrabetzuk oso herri aktibo ospea dauka. Larrabetzuko Umeen Kontseilua kudeatzen dut iaztik. Herriko plan estrategikoa diseinatzeko sortutako udal-lantaldean parte hartzera deitua izan naiz ere, herritarren parte hartzea sustatzeko moduak bilatuz. Bilera horietan herrian (eta bereziki gazteengan) sormen falta antzematen dela aipatu da behin baino gehiagotan. Gero eta pertsona kirolari gehiago dago, eta kultur ekimenetara oso jende gutxi doa. Gaztetxea oso geldirik dago. Herri-antzerki talderik ez dago, eta dantza taldean edo musika eskolan teknika irakasten da baina sormenik ez da lantzen...

Nire etorria eta oraina kontutan hartu dut, eta zuhaitz hori astintzeko pertsonarik egokiena izan nintekeela pentsatu dut.

## ZER DA SORMENA

Sormena bizitza da. Bizitzea, egiten dituzun gauzei xarma bilatzea, jolastea. Sormena maitatzea da.

## ZER IZAN LITEKE SORKUNTZA GUNE BAT LARRABETZUN

Edozer. Pertsona bakoitzak bere sormenaren jarioa topa dezan giro eta baliabideak eskainiko dira. Sormena denok daukagu, baina pertsona askorengan nolabait askatu beharra dago.

## ZER IZANGO DA

Lantalde bat, hasteko. Larunbatetan arratsaldeko 6etatik 8etara elkartuko dena, sei hilabetez, azarotik apirilera bitartean.

ZER EDOZER

LARRABETZUKO SORKUNTZA GUNE

NOLA

-Juiziorik gabeko espazio askea da: ez dago ondo, polit, txarto, edo zatar egindako jarduerarik. Eredu eta konparaziorik gabeko gunea da.

-Norberaren ikerketa eta atsegina da helburu, askatasun osoz, beti ere beste pertsonak eta materialak errespetatuz. Jolasa guztiaren erdigunean kokatu.

-Ez dugu kanpora begirako emaitzarik espero. Kontrakoa erabakitzen ez den bitartean, bertan egiten den guztia desegin egingo da gero, ez da ezer kanpora aterako, ez bertan erakusketan utziko.

- Ez dago 'jakintsurik', denok gara jakintsu. Sorkuntza Gunearen ardura hartuko duen pertsonaren jarrera funtsezkoa izango da bertan garatuko diren jardueratan. Taldea gidatu baino gehiago, giroa zaindu eta orekatzeko jarrera izango du, lankideen beharrianak egokien zaintzen arduratuz.

-Adina ezberdinetako jendearen partehartzea bilatuko da, ahalik eta talde heterogeneoena elkar dadin, giroa aberastuz.

-Taldeak izango duen deriba aurrez jakitea ezinezkoa da, bestela sorkuntza oztopatzen ariko ginatekeelako. Pertsona bakoitzak eta taldeak bere grinak topatzea izango da lehendabiziko zeregina, eta hortik aurrera ikusiko dugu...

ZER EDOZER

LARRABETZUKO SORKUNTZA GUNEA

# N o l a i k a s t e n d a s o r t z e n ?

Erantzun posible bakarra beste honako galdera hau da: Zerk galarazten digu sortzea?

Sorkuntza espontaneoak gure baitako sakonetik sortzen da, eta sortzen ari garenean jatorrian eta modu garbian gara gu geu. Adierazi nahi duguna gugan dago jada, gu gara, beraz sorkuntza lana ez datza materialak ekartzean, baizik jario naturala oztopatzen duten horiek erditik kentzen.

Arte teknika bai, baina Sorkuntza ezin da erakutsi. Nork bere lana du jario hori askatzen. Baina bai eskaini daitezke sorkuntzarako proposak diren zenbait baldintza.

Sorkuntza prozesuaz ari garela, hortxe topatuko ditugu ataskoak, edo ezer esatekorik ez izanak, mota guztietako oztopoak. Bakoitzak bilatu behar ditu bere oztopoen misterio horiei aurre egiteko moduak, baina hemen bidea elkarrekin egin dezakegu.

Oztopoa lekutu eta baztertzerakoan batek argitasun osoz ikusten du, indarra eta irudi argia datoz... eta eraldaketa totala da.

Sorkuntzarako baldintzak: jarrera ludikoa, maitasuna, kontzentrazioa, praktika, trebetasuna, mugen boterearen erabilpena, arriskua, pazientzia, konfidantza...

Denok gara inprobisatzaileak. Inprobisazio modurik ohikoena ahozko solasa da.

Emaitzarekin ez gara askorik kezkatuko, ekintza bera baita emaitza.

Ezustekoei zabalik egongo gara, jakinmina bezala txunditzeko gaitasuna bilatuko baitugu.

Bizitzaren une bakoitza bakarra den ideiaren gainean arituko gara. Aukerak baliatu behar dira nahi dugun guztia jolasteko, egiteko.

NORI

Adina guztietako pertsonak.

Hona etortzeko ez da beharrezkoa sorkuntzan aritzea, ezta proiektu bat ekartzea ere.

.....*Egon al zara inoiz nola edo hala epaitua zarenik sentitzen ez duzun lekuren batean?*

.....*Askatasun jolasak egiten al dituzu?*

.....*Zure sorkuntzarako gaitasunak esnatzeko gogoia duzu?*

Albertok 73 urte ditu eta erretiroa hartu zuenetik bereziki milaka ideia darabilzki buruan. Irakurtzen du barra-barra eta txotxongilo tailer bat montatzen ari da. Bere lorategian esperimentuak egiten ditu.

Janirek 16 urte ditu eta institutuan dabil. Anai txikiarekin jolasten aspertzen da baina bere lagunekin ere zerbait falta zaiola somatzen du. Rock talde batetan abesteko edo antzerkigintzan probatzeko gogoia luke, baina ez daki nora jo.

Paulinak 42 urte ditu eta ama eta langilea da, besteak beste. Esan nahi da denbora libre gutxi duela. Eta beretzako tartetxoak eduki nahi lituzke, gauza desberdinak egiteko, askatasuna dastatzeko...

Mikelek 10 urte ditu eta patinatzea, pilotan aritzea eta izkutaketan jolastea ditu gustokoen. Margotzea ere gustoko du baina ohitura galtzen ari da. Gelan andereinoak askotan pailazo esaten dio baina berak ez daki zergatik.

Patxik 58 urte ditu eta gizarte mugimendu guztietan aritua da. Une honetan gauzak egiteko grina bizia du, herrian ezer mugitzen ez dela ikusteak zeharo artegatzen baitu. Baditu idea bitxi batzuk orain artean inori esaten ausartu ez dena.

Eta abar...

# Z e r g e r t a t z e n d a H E R R I T X I K I E T A N ?

Sortzaile izateko ez da beharrezkoa Berlin, New York, London, Bartzelonan edo Bilbon bizitzea, inolaz ere. Baina hori da gauza bat eta beste bat da herri txikiak itogarri suertatu daitezkeela izpiritu sentikor eta hauskorrentzat. Artista kontsolidatuak askotan herri batera erretiratzen dira euren lanak lasaiago burutu ahal izatera hiriko zaratatik urrun, baina gazterik zerbait egin nahi duenak normalean herritik ospa egiten du. Giro itxia, kontrol sozial handi samarra, ikusmolde estu samarrak nagusi... Zaila da sormen gogoak kutsadura nahikorik izatea. Zaila da gogo sortzailea duen horrek bidelagunak topatzea, gauza berriak asmatu, eraiki edo proposatzeko. Betiko giro eta gaiak inposatzen dira eta izpi bakanak geratu ohi dira herrigiroan.

SORKUNTZARAKO ORDU ETA LEKU ZEHATZ BAT proposatuko die larrabetzuarrei Sorkuntza Gune honek, hegoak zabaltzeko, irudimena hegan jartzeko, gorputzak astintzeko, jolasaren plazerra berraurkitzeko, sormenarekin konektatzeko... eta hortik sor litezkeen ekimen sortzaileei baliabideak eskaintzeko.

FUNTZIONAMENDUA. Astean bi orduz garatuko da hasiera batean, baina hori hasiera besterik ez da izango. Ideia da hortik sortu daitekeen lantaldeak edozer egin dezakeela hortik aurrera. Birika bat izango da bertaratzen diren pertsonentzat, arnas berria eskainiz. Hortik edozer sor daiteke.

HELBURUA: Sorkuntza lantalde bat elkartzea. Ahalik eta anitzena adina eta izaera aldetik. Pertsona ameslariak, grinatsuak, jostakariak, jakinminez beteak, hegan egiteko gogoia dutenak...



ZER EDOZER  
LARRABETZUKO SORKUNTZA GUNEA

SORKUNTZA, GUZTION ONDASUN. Sortzaileak ez dira arraza desberdineko pertsonak, ez dute ADNan inolako berezitasunik. Askatu eta landu beharreko gure ahalmenen parte bat da, libre sentiarazten gaituena, plazerra ematen diguna, bizitzarekin konexioan jartzen gaituena.

Nik Gaztetxe bat adibidez, hala irudikatzen dut: leku aske bat, non jende gaztea bereziki elkartzen den aske izaten ikastera, nahi dutena egitera, ondo pasatzera, ekimenak aurrera ateratzera, norberak sentitzen dituen borrokatan parte hartzera ere, beharbada... Halakorik ez omen da gertatzen gaur egun gaztetxeetan. Ez omen dago halako mugimendurik. Ekimen gutxi batzuk antolatzen dira eta egunerokoan eraikina hutsik dago. Energia geldirik.



Sorkuntza Gune hau EDOZER izan daiteke. Edozer egin dezakegu, beste batzuetan ezer egin ez daitekeela oso fuerte senti daitekeen bezalatsu. Nor hurbiltzen den arabera. Ez gara hasiko helburu zehatzekin, jendaurreko ezer aurkezteko asmoarekin... Edozer sortu dezakegu, jolas ezberdinetan arituko gara, prozesua da garrantzitsuena. Nork bere askatasuna konkistatzeko tailer bat da, azken finean, Askatasun Tailerra deituko ez badiogu ere.

## GARAPEN BIDEAK

Hasiera batean sorkuntzaren inguruan elkartuko garen lantalde bat izango garen arren, hortik EDOZER sor liteke. Garapen bideak ager litezkeen denak dira. Honen atzean dagoen ideia nagusia Larrabetzuko sorkuntzaren BIRIKA izatearena da, beraz edozer egin daiteke, eta horretan jarriko ditugu indarra eta energiak.

Boteprontoan niri bururatu ahal zaizkidan garapen bide posible batzuk hemen:

-Elkar gaitezke astean behin elkarrekin libreki jolastera besterik gabe.

-Elkar gaitezke astean behin elkarrekin sorkuntza lan desberdinak jorratzera.

-Taldeak erabaki dezake proiektu komun bat aurrera ateratzea: dela antzerkia, dantza, eskultura, murala...

-Taldeak erabaki dezake astean behin baino gehiagotan elkartzea jarduera ezberdinak egiteko, ala jarduera bakar bateratu bati buru belarri ekiteko.

-Talde bat baino gehiago sor daitezke, interes desberdinen arabera, eta talde bakoitzak bere deriba propioa izan dezake, kutsadura handiagoa eraginez.

-Gerta liteke ere lantaldeko batzuek teknika ala gai bereziren bat jorratzeko jakintsuren bat ekarri nahi izatea, sorkuntza motaren bat bereziki lantzeko adibidez. Horri ere lekua egingo genioke hemen.

-Herrian sortzen diren bestelako ekimenetan modu diferente batean parte hartzea erabaki dezake.

-Herrian ekimen berriren bat egitea proposatu eta aurrera atera daiteke.

-Herrian abian den Larrabetzu 2025 herritarren partehartze prozesuan modu sortzailean parte hartzea erabaki dezake taldeak, herrigintza aktibismoari helduz.

-Larrabetzun ereindako hazi hau beste herri batzuetara kutsatu daiteke, eta leku eta denbora bakoitzean jarduera guztiz ezberdin eta bereziak burutuko dira.

-Eta abar...

NORK: PERU CALABAZA SABAN

Larrabetzuko biztanlea duela bost urtetik hona. Azken hogei urteotan -behin ikasketak amaituta- sorkuntzaren eta hezkuntza aktiboaren bideetan paraleloki ibili naiz.

Antzerki-idazle bezala ibilbide oparoa egin dut hainbat talderekin batera: FTI-Antzerkiola Imaginarioa (8 Olivetti Poetiko, Mis rarezas dirías tú, La niña que sueña lunas...), l'Alakran (Optimistic vs. Pessimistic, Kairos, Sisyphes Et Zombies), Pikor (Zapaldu Marra, QTMeto!), la elemental (Infame)... baita zuzendari bezala ere. Gasteizko TAEn antzerkigintza eta Barakaldoko BAIn zuzendaritza ikasita, dantzan egitea ere oso gustoko dut. Horrez gain, performanceak edota Antzerki Itsua izeneko egitasmoa gauzatu izan ditut, eta teknikari bezala ere aritua naiz.

Hala ere, antzerkiaz gain gauza interesgarri asko egin ditut bizitzan, eta besteak beste HEZKUNTZA AKTIBOAN, KAZETARITZA SUBERTSIBOAN edota HERRIGINTZA MAITAKORREAN aritu edo aritzen naiz.

SORMEN HEZIKETAn hezi eta tailerrak eraman nituen zortzi urtez; gainera, honek proposatzen dituen irizpideetatik abiatuta edozein ikasketa modu osasungarrian burutu daitekeela ikasi genuen Solasgunen. Ikasketa prozesu komunitario pila bat abiatzen aritu nintzen Herrigune Leioa proiektuan.

Iaz LUK abiatu nuen Larrabetzun: Larrabetzuko Umeen Kontseilua: Alkatearekin batera lan egin eta herriari dagozkion gaiak lantzen dituen 9-12 urte bitarteko haurren lantaldea. Umeen herriaren gainbeko begirada jaso nahi duen proiektua, haien grinak eta gogoak adituz eta proiektuak landuz. LINK: LUK

Besteak beste, NON STOP JOLASA proiektua dut orain eskuartean: adin guztietako pertsoneri zuzendutako jolas librerako espazio iraunkorra. Uneoro jolasterik ez badut ez dela nere iraultza aldarrikatzea gustoko dut.

Uda honetan LARRABETZUN AGOTIK AGORA kanpaina diseinatu dut, eta bideo hau burutu dugu Larrabetzuko Udala burutzen ari den herritarren partehartzerako kanpainari hasiera emateko: LINK: Larrabetzuko Agora.

